

# Eskola inklusiboa: irakaskuntza jarduera, aniztasuna eta desberdintasuna

## 1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Eskola inklusiboa: irakaskuntza jarduera, aniztasuna eta desberdintasuna
- **Modulua:** Modulu Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Saioa Esnaola Martin

## 2. Irakasgaiaren laburpena

Aniztasunaren kontzeptua eta kontzeptu honek gizarteko errealitatean (hezkuntzaren testuinguruan) aztertzeaz gain, hezkuntza inklusiboaren ezaugarrietan sakonduko dugu: eskola eta komunitatea, hezkuntza-eskaintzak, hezkuntza-premia desberdinei erantzuteko aukerak eta gela inklusiboaren ezaugarriak.

## 3. Gaitasunak

### Oinarrizko konpetentziak

CB6. Ideiak garatu eta/edo aplikatzean originalak izateko oinarria edo aukera ematen duten ezagutzak edukitzea eta ulertzea, askotan ikerketa-testuinguru batean.

CB7. Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.

CB8. Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, informazio osatugabea edo mugatua izanik, beren ezagutzak eta iritziak aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituen.

CB9. Ikasleek beren ondorioak – eta horiek sostengatzen dituzten azken ezagutzak eta arrazoiak – publiko espezializatuei eta ez-espezializatuei jakinarazten jakitea, modu argian eta anbiguotasunik gabe.

CB10. Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, ikasten jarraitu ahal izateko, neurri handi batean beren kabuz edo autonomiaz zuzendu beharko duten moduan.

### **Zeharkako konpetentziak**

CT1988 - Giza eskubideen, berdintasunaren, generoaren, kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrera proaktiboak sortzea.

CT1989 - Espezialitatearen eremuko berezko lengoaia zientifikoa erabiltzea.

CT1991 - Irakaskuntzari balioa ematea eta garapen profesionala eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.

### **Konpetentzia orokorrak**

- ✓ Dagokion espezializazioko materietako curriculumaren araberako edukiak ezagutzea eta, orobat, ikaste-irakaste prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak. Lanbide Heziketarako, ostera, eskatuko da dagokion lanbidearen ezagutza.
- ✓ Ikaste-irakaste prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, heziketa-prozesuak indartuz irakaskuntza bakoitzari dagozkion konpetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako mailari eta prestakuntzari erreparatuko zaie, modu indibidualean zein zentroko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean.
- ✓ Informazioa (ahozkoa, inprimatutakoa, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia) bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea eta ikaste-irakaste prozesuetan espezializazioari dagozkion materietan aplikatzea.
- ✓ Ikastetxe batean ezarriko den curriculuma zehaztea, lankidetzan arituz hura planifikatzen; metodologia didaktikoak garatzea eta ezartzea, taldekoak zein pertsonalizatuak, ikasleen aniztasunera egokituta.
- ✓ Ikasketa-guneak diseinatzea eta garatzea, arreta berezia eskainita honako arlo hauei: ekitatea, heziketa emozionala eta baloreena, eskubide- eta aukera-berdintasuna gizon eta andreen artean, hiritar-heziketa eta jendartean bizitzea erraztuko duten giza eskubideekiko begirunea, erabakiak hartzea eta etorkizun iraunkorra eraikitzea.
- ✓ Estrategiak eskuratzeko ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitzeko trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta iniziatiba sendotuko dira.
- ✓ Tutore lanak egitea lankidetzan eta modu koordinatuan; irakaskuntza- eta ikerketa-prozesuen ebaluazioan, ikerketan eta berrikuntzan parte hartzea. Eskola komunitatean koordinazioak duen garrantziaz ohartzea.

- ✓ Hezkuntza-sisteman ikasketa esanguratsua bultzatzeko inklusio zein aniztasun proiektu eta planak ezagutzea.

### **Konpetentzia espezifikoak**

- ✓ CE1511 - Ikastetxeko plangintza-dokumentuak diseinatzen jakitea eta hezkuntza-proiektuaren definizioan, curriculuma garatzeko prozesuetan eta ikastetxeko jarduera orokorretan parte hartzea, honako irizpide hauek kontuan hartuta: hezkuntzaren kalitatea hobetzea, aniztasunari erantzutea, ikaskuntza- eta bizikidetzaz arazoak prebenitzea eta eskola-arrakasta sustatzea.
- ✓ CE1512 - Hezkuntza ingurunearekin erlazionatzea eta familiaren eta komunitatearen hezkuntza-funtzioa ulertzea, bai gaitasunak eta ikaskuntzak eskuratzean, bai hezkuntzan, eskubideak eta askatasunak errespetatzean, gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasunean eta desgaitasunen bat duten pertsonen tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezan, edo gizarteratzeko arriskua ekar dezakeen beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialetan.
- ✓ CE1514 - Eskola komunitatearekin elkarlanean aritzea, ikastetxea familiekin koordinatzeko neurriak hartzeko, eta haiek hezkuntza-prozesuetan benetan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko estrategiak diseinatzeko.
- ✓ CE1574 - Irakaskuntzan ahozko eta idatzizko adierazpena ondo menderatzen dela egiaztatzea.
- ✓ CE1575 - Ikaskuntza eta bizikidetzaz erraztuko duen giroa sustatzeko beharrezkoak diren trebetasun eta trebetasun sozialak menderatzea.
- ✓ CE1576 - Jarduera-eremuetan hobetzeko proposamenetan parte hartzea, praktikan oinarritutako hausnarketatik abiatuta.
- ✓ CE1580 - Ikasleen ezaugarriak, gizarte-testuinguruak eta motibazioak ezagutzea.
- ✓ CE1581 - Ikasle horien nortasunaren garapena eta ikaskuntzari eragiten dioten balizko disfuntzioak ulertzea.
- ✓ CE1582 - Ezagutza, trebetasun eta gaitasun intelektual eta emozionaletan oinarritutako proposamenak egitea.
- ✓ CE1583 - Hainbat gaitasun eta ikasteko erritmo dituzten ikasleei eragiten dieten hezkuntza-egoeren ebazpena identifikatzea eta planifikatzea.
- ✓ CE1584 - Ikasgelako eta ikastetxeko elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak ezagutzea, eta egon daitezkeen arazoak jorratu eta konpontzea.
- ✓ CE1589 - Hezkuntza ingurunearekin lotzea eta familiaren eta komunitatearen hezkuntza-funtzioa ulertzea, bai gaitasunak eta ikaskuntzak eskuratzeari dagokionez, bai eskubideak eta askatasunak errespetatzeari, gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-

berdintasunari eta desgaitasunen bat duten pertsonen tratu- eta diskriminazio-berdintasunari dagokienez.

- ✓ CE1505 - Ikasleen ikasteko gaitasunean eta eskola-errendimenduan eragiten duten faktoreak eta prozesuak identifikatzea eta baloratzea.
- ✓ CE1506 - Hezkuntza-materialen, -egoeren eta -testuinguruen proposamenak aztertzea, lantzea eta berrikustea, faktore eta prozesu horiek eta ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren egungo teoriak ezagututa.

#### 4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

- 1- Eskola inklusiboa eta printzipioak.
- 2- Guztientzako espazio bat eraikitzen
- 3- Bazterketa eta inklusio prozesuak
- 4- Pertsona guztien aukera-berdintasuna eta hezkuntzarako eskubidea
- 5- Eskola inklusiborako gaitasun beharrezko oinarriak
- 6- Eskolak, gelak eta hezkuntza praktika inklusiboak

#### 5. Bibliografia

- BOOTH, A. eta AINSCOW, M. (2005): Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Unibertsitate eta ikerketa saila. Vitoria.
- CALERO, J. (dir.) (2008): Sociedad desigual, ¿educación desigual? Sobre las desigualdades en el sistema educativo español. Madrid: Ministerio de educación, Política social y deporte.
- CASANOVA, M.A. (2011). Educación inclusiva: un modelo de futuro. Barcelona: Wolters Kluwer
- DUBET, F. (2005): La escuela de las oportunidades. Barcelona: Gedisa.
- ECHEITA, G. (2008). Educación para la inclusión o educación sin exclusiones. Madrid: Narcea.
- [ESCUADERO, J.M \(2012\). La educación inclusiva, una cuestión de derecho. Revista de la Facultad de Educación, Vol. 30, Num. 2. Pag. 109-128.](#)
- ESSOMBA, M.A. (2006). Liderar escuelas interculturales e inclusivas: Equipos directivos y profesorado ante la diversidad cultural y la inmigración. Barcelona: Grao.
- MACARULLA, I. Y SAIZ, M. (COORDS.). (2009): Buenas prácticas de escuela inclusiva: La inclusión de alumnado con discapacidad: Un reto, una necesidad. Barcelona: Grao.
- MARTINEZ DOMINGUEZ, B.: (2002): La educación en la diversidad en los albores del siglo XXI.
- MENDÍA G., R. (1999). Gradación de las medidas de tratamiento de la diversidad. Organización y Gestión Educativa, nº 2, 13-16.
- En FORTEZA, D. Y ROSELLÓI, M.R. (coord.): Educación, diversidad y calidad de vida. Palma. Iniv. De Illes Balears.
- MORIÑA, A. (2004). Teoría y práctica de la educación inclusiva. Málaga: Aljibe.
- MORIÑA, A. (2008). La escuela de la diversidad: Materiales de formación para el profesorado. Madrid: Síntesis.
- STAINBACK, S. y STAINBACK, W. (2004): Aulas inclusivas. Madrid, Narcea.

- SANTOS REGO, M. A. (2009): Políticas educativas y compromiso social. El progreso de la equidad y la calidad. Madrid: Octaedro.
- SARSANEDAS, E., et al., Pistas para cambiar la escuela, Intermón Oxfam, 2009
- TERRÉN, E. (2004): Incorporación o asimilación. La escuela como espacio de inclusión social. Madrid: Catarata.
- TERESA SUSINOS RADA Y CARLOS RODRÍGUEZ-HOYOS (2011) .**“La educación inclusiva hoy. Reconocer al otro y crear comunidad a través del diálogo y participación”**. Revista Interuniversitaria de formación del profesorado.
- USATEGUI BASOZABAL, E. y VALLE LOROÑO, A. del (2007): La escuela sola. Voces del profesorado. Vitoria-Gasteiz: Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa.
- USATEGUI BASOZABAL, E. y VALLE LOROÑO, A. del (2009): La escuela cuestionada. Voces del alumnado y las familias. Vitoria-Gasteiz: Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa.
- USATEGUI BASOZABAL, E. y VALLE LOROÑO, A. del (2012): Aprender a enseñar: Los valores en la formación inicial del profesorado. Vitoria-Gasteiz: Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa.